# Gizarte Zerbitzuen Estatistika

## Emaitzen analisia

# Estadística de Servicios Sociales

## Análisis de resultados

Eustat

2004

# INDICE GENERAL

# AURKIBIDE OROKORRA


| | Pag./**Or.** | |
|---|---|---|
| **INTRODUCCION** | III | **SARRERA** |
| **1.ENTIDADES YCENTROS** | VII | **1.ENTITATEAK ETAZENTROAK** |
| 1.1.Características y tipología de las Entidades yCentros | VII | 1.1.Entitateen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia |
| 1.2.Personal de Entidades y Centros | X | 1.2.Entitateetako eta zentroetako langileak |
| 1.3.Gasto de Entidades y Centros | XIII | 1.3.Entitateen eta zentroen gastua |
| 1.4.Financiación del Sistema | XV | 1.4.Sistemaren finantzaketa |
| **RESIDENCIAS** | XVIII | **EGOITZAK** |
| 2.1.Centros y Plazas | XVIII | 2.1.Zentroak eta plazak |
| 2.2.Usuarios | XXI | 2.2.Erabiltzaileak |
| 2.3.Personal de las Residencias | XXIII | 2.3.Egoitzetako langileak |
| 2.4.Gasto de las Residencias | XXV | 2.4.Egoitzen gastua |
| 2.5.Financiación de las Residencias | XXVIII | 2.5.Egoitzen finantzaketa |

## INTRODUCCIÓN

Los servicios sociales, entendidos como el conjunto de recursos y actuaciones dirigidos a atender necesidades sociales no cubiertas desde otros ámbitos, se observan como un sistema abierto. Desde 1988, año en que se inicia la estadística, varios servicios, como guarderías y centros de reforma de menores, han quedado fuera del sistema en la medida que han sido asumidos por otros organismos. A pesar de ello, el gasto destinado a servicios sociales continúa aumentando por el desarrollo de nuevas actuaciones: las más importantes han estado orientadas hacia prestaciones económicas y tercera edad, tales como Renta Básica, Ayudas de Emergencia Social (AES), Ayudas a familias con hijos e hijas, centros de día asistenciales, de respiro y otros recursos.

Los datos correspondientes al presente análisis indican que, con un gasto total de 1.196 millones de euros, 123 millones más que el año anterior, el sector mantiene un ritmo de crecimiento superior al conjunto de la economía, manteniendo su participación en el 2,2% del PIB alcanzado en 2003. Este aumento del gasto supuso un incremento del 11,5% respecto al año anterior.

Con una tasa anual acumulada del 10,9%, el crecimiento de la última década (1995-2004) supera en un 3,8% al registrado en el conjunto de la economía. En este período el gasto en servicios sociales se ha duplicado, con incrementos acumulados para el período del 158% en el gasto corriente y del 131% en las transferencias a las familias. Esta evolución se puede comprobar en cada una de las variables sobre gastos e ingresos, que se adjuntan en el cuadro resumen del sector para el citado período.

En unidades económicas equivalentes, con una tasa anual acumulada del 8% desde 1995, el gasto por habitante ha aumentado un 93%, hasta llegar en 2004 a 562 euros, es decir, 271 euros más que hace 10 años. La aportación de las administraciones públicas al sistema en 2004 representa 394 euros por habitante, 232 euros más que hace 10 años; sólo en este último año, el esfuerzo realizado ha representado un incremento de 44 euros por habitante en relación a 2003.

## SARRERA

Gizarte zerbitzuak, beste arlo batzuen bidez betetzen ez diren gizarte beharrizanei arreta emateko baliabide eta jarduketa gisa hartuta, sistema irekia dira. Estatistika hasi zen urtetik, hots, 1988tik, zenbait zerbitzu, esaterako haurtzaindegiak eta adingabeentzako erreforma-zentroak, sistematik kanpo geratu dira beste erakunde batzuek hartu dituzten heinean. Hala ere, gizarte-zerbitzuetarako gastuak gehitzen jarraitzen du, beste jarduera batzuk egin baitira: jarduera garrantzitsuenak ekonomia prestazioetarako eta zaharrentzako izan dira, hala nola, oinarrizko errentaren ingurukoak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), seme-alabak dituzten familientzako laguntzak, eguneko laguntza-zentroak, familiei atseden emateko etxeak eta abar.

Analisi honi dagozkion datuek adierazten dute 1.196 milioi euroko guztizko gastuarekin (joan den urtean baino 123 milioi gehiago), sektorearen hazkunde-erritmoa ekonomia osoak izandakoa baino biziagoa izan dela, eta guztira 2003an lortutako BPGaren %2,2koa izan dela. Gastu hori iazkoa baino %11,5 handiagoa izan da.

Urteko %10,9ko tasa metatuarekin, azken hamarkadako (1995-2004) hazkundeak %3,8 gainditu du ekonomia osoan izandako hazkundea. Aldi horretan, gizarte-zerbitzuetako gastua bikoiztu egin da eta honako hazkunde metatuak lortu ditu: %158koa gastu arruntean, eta %131koa familientzako diren transferentzietan. Gastuen eta sarreren aldagai bakoitzean egiazta daiteke bilakaera hori, eta aldi horretan sektoreak izan duen ibilbideari buruzko laburpen koadroan azaltzen dira aldagaiok.

Unitate ekonomiko baliokideetan, 1995az geroztik biztanle bakoitzeko gastua %93 hazi da, %8ko tasa metatuarekin. 2004an 562 eurokoa izateraino iritsi da, hau da, duela 10 urte baino 271 euro gehiagokoa. 2004an, administrazio publikoek sistemari egindako ekarpena biztanle bakoitzeko 394 euro izan da, hau da, duela 10 urte baino 232 euro gehiago. 2003. urtearen aldean, azken urte honetan egindako ahaleginari esker, 44 euroko hazkundea egon da biztanle bakoitzeko.

## 1. TAULA. 1995 2004 ALDIKO ALDAGAI GARRANTZITSUENEN BILAKAERA (GASTUA UNEKO MILA EUROTAN)

TABLA 1. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES VARIABLES PARA EL PERÍODO 1995-2004. (MILES DE EUROS EN PRECIOS CORRIENTES)

| | 2004 | 2003 | 1995 | Urte arteko (04/03) ∆ Interanual | Urteko tasa metatua (04/95) Tasa acumulativa anual | Aldakuntza-tasa (04/95) Tasa de variación |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **BALIABIDE EKONOMIKOAK** RECURSOS ECONÓMICOS | **1.196.320** | **1.073.054** | **470.457** | **11,5** | **10,9** | **154,3** |
| **Gastu arruntak** / Gastos corrientes | 876.216 | 786.287 | 339.103 | 11,4 | 11,1 | 158,4 |
| **Ordainsariak** / Retribuciones | 420.968 | 390.313 | 195.311 | 7,9 | 8,9 | 115,5 |
| **Bestelakoak** / Otros corrientes | 455.248 | 395.974 | 143.792 | 15,0 | 13,7 | 216,6 |
| **Familietarako transferentziak** Transferencias a familias | 270.046 | 232.086 | 116.631 | 16,4 | 9,8 | 131,5 |
| **Kapital-gastuak** / Gastos de capital | 50.057 | 54.681 | 14.723 | -8,5 | 14,6 | 240,0 |
| **Entitate eta zentro publikoetako gastuak** Gasto en entidades y centros públicos | 723.243 | 639.209 | 298.368 | 13,1 | 10,3 | 142,4 |
| **Entitate eta zentro pribatuetako gastuak** Gasto en entidades y centros privados | 473.077 | 433.845 | 172.089 | 9,0 | 11,9 | 174,9 |
| **Finantzaketa publikoa** / Financiación pública | 837.714 | 741.894 | 339.250 | 12,9 | 10,6 | 146,9 |
| **Finantzaketa pribatua** / Financiación privada | 358.606 | 331.160 | 131.208 | 8,3 | 11,8 | 173,3 |
| **GIZA BALIABIDEAK** / RECURSOS HUMANOS: | **36.221** | **32.657** | **22.714** | **10,9** | **5,3** | **59,5** |
| **Bertako langileak** / Personal propio | 20.613 | 18.855 | 11.202 | 9,3 | 7,0 | 84,0 |
| **Bertako langileak (DOB)** Personal propio (E.D.P) (1) | 18.653 | 17.224 | 10.537 | 8,3 | 6,6 | 77,0 |
| **Borondatezkoak** / Voluntariado | 15.608 | 13.802 | 11.512 | 13,1 | 3,4 | 35,6 |
| **BALIABIDE MATERIALAK** RECURSOS MATERIALES: | | | | | | |
| **Entitate-kopurua** / Número de entidades | 1.304 | 1.266 | 1.003 | 3,0 | 3,0 | 30,0 |
| **Zentro-kopurua** / Número de centros | 2.512 | 2.388 | 1.617 | 5,2 | 5,0 | 55,3 |
| **Egoitza-kopurua** / Número de residencias | 715 | 666 | 411 | 7,4 | 6,3 | 74,0 |
| **Egoitza-platzak** / Plazas residenciales | 19.596 | 18.750 | 13.612 | 4,5 | 4,1 | 44,0 |
| **GASTUA TIPOLOGIAREN ARABERA** GASTO SEGÚN TIPOLOGÍA: | | | | | | |
| **Biztanleria osoa** / Población general | 458.008 | 388.093 | 183.429 | 18,0 | 10,7 | 149,7 |
| **Familietarako transferentziak** Transferencias a familias | 270.046 | 227.127 | 113.912 | 18,9 | 10,1 | 137,1 |
| **Haur-Gazteak** / Infancia-Juventud | 38.221 | 34.003 | 16.864 | 12,4 | 9,5 | 126,6 |
| **Egoitzak /** Residencias | 29.048 | 25.567 | 13.451 | 13,6 | 8,9 | 116,0 |
| **Zaharrak /** Ancianos | 345.852 | 335.921 | 132.253 | 3,0 | 11,3 | 161,5 |
| **Egoitzak /** Residencias | 296.983 | 287.724 | 116.747 | 3,2 | 10,9 | 154,4 |
| **Ezgaitasuna /** Discapacidad | 286.076 | 253.904 | 109.072 | 12,7 | 11,3 | 162,3 |
| **Egoitzak /** Residencias | 43.533 | 42.345 | 26.060 | 2,8 | 5,9 | 67,0 |
| **Lanbide-zentroak eta EZB (2)** Centros Ocupacionales y C.E.E | 189.707 | 162.335 | 63.792 | 16,9 | 12,9 | 197,4 |
| **Emakumeak /** Mujer | 6.446 | 5.817 | 2.506 | 10,8 | 11,1 | 157,2 |
| **Baztertuak /** Marginados | 61.717 | 55.317 | 26.336 | 11,6 | 9,9 | 134,3 |
| **Biztanleko gastua (euro)** Gasto por habitante (euros) | 562 | 506 | 224 | 11,0 | 10,8 | 150,7 |
| **% BPG /** % PIB | 2,2 | 2,2 | 1,6 | 3,6 | 3,6 | 37,6 |

(1) / Equivalencia a dedicación plena.

(2) **Enplegu-zentro bereziak** / Centros especiales de empleo.

Respecto a los distintos programas de transferencias a familias desde la Administración Pública:

– El programa de Renta Básica (125,2 millones de euros), con un aumento del 14% respecto a 2003, ha visto duplicar su gasto en sólo cuatro años (+ 137%). En 2004 alcanzó un gasto por habitante de 59 euros, con importantes diferencias territoriales, al obtenerse en Bizkaia un gasto de 79 euros por habitante, frente a los 53 de Álava y 27 de Gipuzkoa; esta distribución territorial es poco frecuente en el ámbito de los servicios sociales, e indica la existencia de un mayor grupo poblacional en riesgo de exclusión social por motivos económicos en el territorio vizcaíno.

– En concepto de AES se ha gastado 29,2 millones de euros, cifra algo inferior a la obtenida en 2003, con mayor peso en el territorio alavés, con un gasto de 20 euros por habitante frente a los 14 de Bizkaia y 11 de Gipuzkoa.

– Continúa el descenso, iniciado en 2002, en el conjunto de pensiones no contributivas tradicionales: Pensiones no Contributivas (PNC), Fondos de Bienestar Social (FBS) y Ley de Integración Social del Minusválido (LISMI), con 55 millones de euros (-2%), como resultado de la elección de otras prestaciones de mayor cuantía.

Por último, cabe destacar los siguientes aspectos referidos al año 2004:

– La aparición de una partida nueva que, con carácter de prestación única, se concedió en concepto de Ayudas económicas a las víctimas del franquismo, con una cifra cercana a los 23 millones de euros, la cual representa por sí sola el 1,9% del gasto. Su aparición incide en ciertas variaciones, como es el incremento en la cuota de financiación de la Administración Autonómica en el sistema, así como el incremento porcentual del gasto destinado a los servicios centrales (centro de gasto que aglutina principalmente los gastos en prestaciones económicas, ayuda domiciliaria y servicios comunes) de forma que supera por primera vez al de los centros residenciales.

– En concepto de ayuda a domicilio, el gasto ascendió a 57,8 millones de euros (+15%). Este servicio se cofinanció en un 90% por la Administración Pública y el restante 10% por el pago de los usuarios. Se atendieron 19.000 usuarios (+ 8%), con un coste medio de 3.036 euros por usuario. La mayoría de los usuarios que recibieron atención domiciliaria (90%) pertenecían al colectivo de la tercera edad, cifra que supone una cobertura del 5% de este grupo en la C.A. de Euskadi.

– En los centros residenciales destinados a tercera edad, recurso básico de los servicios sociales, se ofertaron 15.038 plazas, con un gasto total de 297 millones de

Familientzako transferentzien programei dagokienez, administrazio publikoak honako ekintza hauek egin ditu:

– Oinarrizko errentaren programa (125,2 milioi euro) %14 igo da 2003. urtearen aldean. Lau urtetan gastua bikoiztu egin da (%+137). 2004an biztanle bakoitzeko 59 euroko gastua egon zen. Alde handiak izan ziren lurraldearen arabera: Bizkaian biztanle bakoitzeko 79 euroko gastua egon zen, Araban 53 eurokoa eta Gipuzkoan 27koa. Lurraldeen araberako banaketa hori ez da oso ohikoa gizarte zerbitzuen alorrean, eta arrazoi ekonomikoengatik Bizkaian gizarte bazterkeria jasateko arrisku handiagoa duen biztanle multzoa dagoela adierazten du.

– Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan 29,2 milioi euro gastatu dira, hots, 2003an lortutako zenbatekoa baino pixka bat gutxiago. Gehien Araban gastatu da, biztanle bakoitzeko 20 euro, Bizkaian 14 euro eta Gipuzkoan 11 euro.

– Ohiko kontribuzioez besteko pentsioei dagokienez, 2002an hasitako beheranzko joerak bere horretan jarraitzen du: kontribuzioez besteko pentsiotan, gizarte-ongizateko funtsetan eta ezgaituak gizarteratzeko legean 55 milioi euro gastatu dira (%-2), zenbateko handiagoa izan duten beste prestazio batzuk aukeratu izanaren ondorioz.

Azkenik, hona hemen 2004an nabarmendu diren gaiak:

– Partida berri bat atera da, eta prestazio bakarraren izaera du: frankismo garaiko biktimei emandako laguntza ekonomikoa, hain zuzen ere. Partida 23 milioi eurokoa izan da gutxi gorabehera, eta gastuaren %1,9 izan da berez. Partida horrek zenbait aldaketa eragin ditu, hala nola erkidegoko administrazioaren finantzaketa kuota igotzea, bai eta zerbitzu nagusietarako (batik bat prestazio ekonomikoen, etxeko laguntzaren eta zerbitzu komunaren gastuak biltzen dituen gastuetarako zentroa) gastuaren portzentajezko hazkundea igotzea ere. Beraz, lehen aldiz gainditu da egoitza zentroena.

– Etxeko laguntzari dagokionez, gastua 57,8 milioi eurokoa izatera iritsi da (%+15). Zerbitzu hori aldi berean finantzatuta dago: %90 administrazio publikoak finantzatu du eta gainerako %10 erabiltzaileen ordainketekin finantzatu da. 19.000 erabiltzaile artatu dira (%+8), eta erabiltzaile bakoitzaren batez besteko kostua 3.036 euro izan dira. Etxez etxeko arreta jaso duten erabiltzaile gehienak (%90) hirugarren adinaren taldekoak izan dira, eta horrek Euskal Autonomia Erkidegoan talde horren %5 estali dela adierazten du.

– Gizarte zerbitzuen oinarrizko baliabide diren hirugarren adinerako egoitzetan 15.038 toki eskaini dira. Gastua, guztira, 297 milioi eurokoa izan da, eta gastu hori gizar-

Evolución del gasto por habitante en Servicios Sociales. (euros) Gráfico **1 Grafikoa** **Biztanle bakoitzeko gastuaren bilakaera, gizarte zerbitzuetan (eurotan)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

euros, cifra que representa el 25% del gasto en servicios sociales. En la mayoría de estos centros existe el co-pago o participación del usuario en la financiación del coste residencial según los recursos disponibles por parte del anciano; el usuario aportó por este concepto el 41% del gasto realizado, mientras que las distintas administraciones aportaron el 52%. Durante 2004 se crearon 488 plazas, con un incremento del 3% en el gasto que, en términos absolutos, supone 9,3 millones de euros más que el año anterior. En conjunto, en estos dos últimos años, la oferta ha experimentado un importante crecimiento, con la creación de 2.032 plazas y el incremento del gasto en un 28%.

te-zerbitzuen gastuaren %25 da. Horrelako zentro gehienetan, egoitzako kostuaren finantzaketan baterako ordainketa edo erabiltzailearen partaidetza egoten da, betiere zaharrak eskura dituen baliabideen arabera. Egindako gastuaren %41 ordaindu dute erabiltzaileek, eta administrazioek, aldiz, %52. 2004an 488 plaza sortu ziren. Gastua %3 igo zen, eta, termino absolututan, aurreko urtean baino 9,3 milioi euro gehiago izan da. Oro har, azken bi urte hauetan eskaintza nabarmen hazi da. 2.032 plaza sortu dira eta gastua %28 igo da.

Evolución del gasto en Servicios Sociales. (millones de euros) Gráfico **2 Grafikoa** **Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaera. (milioi eurotan)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Evolución del PIB y gasto total.
(Nº indice con base 1994)

Gráfico **2B** **Grafikoa**

**BPGaren eta guztizko gastuaren bilakaera,**
**(1994. urtean oinarritutako indizea)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

## 1. ENTIDADES Y CENTROS

### 1.1. Características y tipología de las Entidades y Centros

Los servicios sociales en la C.A. de Euskadi se estructuraron en el año 2004 en torno a 1.304 entidades que, a través de sus 2.512 centros, instrumentaron las diferentes prestaciones sociales ofertadas por el sistema.

El año 2004 significó, respecto al año anterior, un crecimiento del 3% en el número de entidades que participaron con su actividad en los servicios sociales. Respecto al número de centros el ritmo de crecimiento fue de un 5%, un punto por encima del período anterior.

## 1. ENTITATEAK ETA ZENTROAK

### 1.1. Entitateen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuak 1.304 entitateren inguruan egituratu ziren 2004. urtean. Gizarte-zerbitzuetako entitate horien 2.512 zentroen bidez, sistemak eskainitako gizarte zerbitzuak bideratu ziren.

2004an, beraien jarduerarekin gizarte zerbitzuetan parte hartu zuten entitateen kopurua %4 hazi zen, aurreko urtearen aldean. Zentro kopuruari dagokionez, hazkunde-erritmoa %5 izan zen, aurreko aldian baino puntu bat gehiago.

**2. TAULA. GIZARTE-ZERBITZUETAKO ENTITATEEN ETA ZENTROEN BANAKETA 2004. URTEAN.**
TABLA 2. DISTRIBUCIÓN DE ENTIDADES Y CENTROS DE SERVICIOS SOCIALES EN 2004.

| | **EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **GUZTIRA** TOTAL | **PUBLIKOA** PÚBLICOS | **PRIBATUAK** PRIVADOS | **ARABA** ÁLAVA | **BIZKAIA** | **GIPUZKOA** |
| **Entitateak** / Entidades | **1.304** | **311** | **993** | **249** | **699** | **356** |
| **%** | 100 | 24 | 76 | 19 | 54 | 27 |
| **Zentroak** / Centros | **2.512** | **987** | **1.525** | **501** | **1.242** | **769** |
| **%** | 100 | 39 | 61 | 20 | 49 | 31 |

Si atendemos a la distribución geográfica, las entidades y centros de la C.A. de Euskadi tienden a concentrarse en las poblaciones más importantes: el 42% de los centros se sitúan en las capitales vascas. El factor capitalidad más acentuado se produce en Álava, con una concentración del 63% de sus centros en Vitoria-Gasteiz. En Bizkaia se obtiene un nivel de concentración similar al comparar la comarca del Gran Bilbao (72%) con la Llanada Alavesa (70%), aunque solamente se concentra en la capital vizcaína el 41% de los centros. El modelo guipuzcoano es más disperso, con el 32% de centros situados en la capital y el 49% en la comarca de Donostia-San Sebastián. Sin embargo, esta distribución no es homogénea, ya que servicios sociales de base, clubes y asociaciones de jubilados se encuentran ampliamente distribuidos por la mayoría de municipios.

Banaketa geografikoari begiratuz gero, Euskal AEko entitate eta zentroak herririk handienetan biltzen dira: zentroen %42 Euskadiko hiriburuetan daude. Hiriburutza-faktorea nabarmenagoa da Araban, zentro guztien %63 Gasteizen baitaude. Bizkaian antzeko kontzentrazio maila dago Bilbo Handia (%72) Arabako Lautadarekin (%70) alderatzean, nahiz eta Bizkaiko hiriburuan zentroen %41 kontzentratzen den. Gipuzkoako eredua sakabanatuagoa da; zentroen %32 hiriburuan daude, eta %49 Donostialdean. Hala ere, banaketa hori ez da homogeneoa. Izan ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, klubak eta erretiratu taldeak oso sakabanatuta daude udalerri gehienetan.

La red de servicios sociales de la C.A. de Euskadi se caracteriza por la coexistencia de dos modelos de entidades contrapuestos entre sí; por un lado las “macroentidades”, pocas en número, entre el 2 y el 5% según la variable utilizada, pero con un alto grado de concentración de recursos. En el extremo contrario, las “microentidades” que a pesar de ser muy numerosas, en torno al 80%, no llegan a emplear el 20% de los recursos económicos y de personal.

Euskal AEko gizarte-zerbitzuen sarearen tipologiari dagokionez, bi eredu kontrajarri daude; alde batetik, makroentitateak daude, kopuruz gutxi, % 2 eta % 5 bitartean (erabilitako aldagaien arabera), baina baliabide kontzentrazio maila handiarekin. Beste muturrean, mikroentitateak ditugu; oso ugariak diren arren (%80 inguru), baliabide ekonomikoen eta pertsonalekoen %20 baino gutxiago erabiltzen dituzte.

El elevado número de microentidades viene explicado en el sector privado por la importancia que adquiere en nuestra sociedad el asociacionismo, donde los usuarios encuentran un medio para solucionar problemas comunes, y la creciente presencia de pequeñas residencias de ancianos procedentes del mundo empresarial. En el sector público, estas pequeñas entidades las forman los ayuntamientos de pequeños municipios y las fundaciones públicas para la gestión de residencias municipales de ancianos. Esta realidad forma parte del tejido social promovido desde la Ley de Servicios Sociales, al contemplar aspectos como “el fomento del voluntariado social y de las entidades sin ánimo de lucro”, “la posibilidad, mediante regulación de su intervención, de participación de la iniciativa privada en la prestación de los servicios sociales” y las competencias otorgadas a los ayuntamientos en materia de servicios sociales, independientemente de su tamaño de población, ”atendiendo a criterios de descentralización, flexibilidad y proximidad a la ciudadanía”.

Ugaritasun hori erraz ulertzen da sektore pribatuan, kontuan hartzen baditugu bai asoziazionismoaren garrantzia (hor aurkitzen dute erabiltzaileek arazo komunak konpontzeko bidea), bai enpresa-mundutik datozen zahar-etxe txikien gero eta presentzia handiagoa. Sektore publikoan, herri txikietako udalek eta udaletako zahar etxeak kudeatzeko fundazio publikoek osatzen dituzte entitate horiek. Errealitate hori Gizarte Zerbitzuen Legearekin sustatutako gizarte ehunaren parte da, honako alderdi hauek kontuan hartzen baititu: «borondatezko gizarte lana eta mozkina ateratzeko asmorik gabeko entitateak», «ekintza pribatuaren parte hartze arautua gizarte zerbitzuen kudeaketan» eta udalei, tamaina edozein dela ere, gizarte zerbitzu alorrean «deszentralizazio, malgutasun eta hiritarrekiko hurbiltasun irizpideen arabera» emandako konpetentziak.

La gran mayoría de las entidades que actúan en el campo de los servicios sociales son unicelulares (79%), es decir, instrumentan sus servicios a través de un único centro. Solamente un 5% de las entidades cuenta con una red de más de cinco centros que, sin embargo, concentran el 52% del gasto total del sistema. En este pequeño grupo se encuentran las redes de las Diputaciones Forales y de los Ayuntamientos de las ciudades más populosas de la C.A. de Euskadi.

Gizarte zerbitzuen esparruan diharduten entitateen artean, gehienak zelula bakarrekoak dira (%79), hau da, zentro bakar baten bidez eskaintzen dituzte zerbitzuak. Entitateen %5 bakarrik baliatzen dira bost zentrotik gorako sareaz; dena dela, entitate horiek sistemari dagokion gastu guztiaren %52 biltzen dute. Multzo txiki horretan, foru aldundien eta erkidegoko hiririk jendetsuenetako udalen sareak daude.

Atendiendo al número de trabajadores, de nuevo se evidencia el elevado número de entidades pequeñas, al contar en su mayoría (68%) con una plantilla inferior a 5 trabajadores; por el contrario, tan sólo un 2% de las entidades cuentan con más de 100 empleados y concentran el 54% del personal empleado.

Langile kopuruari dagokionez, berriro ere entitate txikien garrantzia agerian geratzen da, gehienek (%68) 5 langiletik behera baitituzte. Aitzitik, entitateen %2k besterik ez dituzte 100 langile baino gehiago eta landunen %54 daude hor sartuta.

En términos económicos, casi la mitad de las entidades (42%) se sitúan en un nivel de gasto inferior a 30.000 euros, representando en conjunto el 1% del gasto total; en el extremo contrario, 22 entidades (2%), con un nivel de gasto superior a 6 millones de euros, concentran más de la mitad del gasto total del sistema (63%). Esta concentración alcanza su máximo en Álava, donde el 1% de entidades, todas ellas públicas, representan el 77% del gasto y su mínimo en Gipuzkoa, donde el 3% de entidades realizan el 63% del gasto.

En función del tipo de población atendida, el 43% de los centros atienden a los mayores, el 21% se dedica a los discapacitados y el 13% se dirige a la población en general; se incluyen en este epígrafe las unidades de base y centros de prevención de drogodependencias. Los demás sectores de población (infancia-juventud, mujer y marginación) agrupan el 23% restante.

Diruaren aldetik, ia entitateen erdiak (%42) 30.000 eurotik beherako gastua hartzen dute, hau da, gastu osoaren % 1. Kontrako muturrean, 6 milioi eurotik gorako gastua dute 22 entitatek (%2), hots, 6 milioi eurotik gorako gastuarekin, sistemaren gastu osoaren erdia baino gehiago (% 63) osatzen dute. Kontzentrazio horrek Araban du kopuru handiena, entitateen % 1ek (guztiak publikoak) guztizko gastuaren % 77 jasotzen baitu; kopuru txikiena, berriz, Gipuzkoan dugu, entitateen %3k gastuaren %63 egiten baitute.

Arreta ematen zaion biztanleria motaren arabera, zentroen %43 zaharrekin aritzen da, %21 ezgaituekin, eta %13 biztanleria osoarentzat da. Azken atal horretan oinarrizko unitateak eta droga mendetasunen prebentziorako zentroak sartzen dira. Gizarteko gainerako arloek (haurrak eta gazteak, emakumeak eta baztertuak) gainerako %23 biltzen dute.

Centros, según tipo de población (%) — Gráfico 3 **Grafikoa** — **Zentroak, artatutako biztanleria motaren arabera (%)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Según tipo de centro, el abanico existente es muy diverso, constituyendo los centros residenciales el grupo más numeroso (715) que, junto con los centros de día (578), representan la mitad de los centros existentes.

Zentroen tipologia oso zabala da. Kopuruz, 715 egoitza zentrok osatzen dute talderik nagusiena; eta horiek, 578 eguneko zentroekin batera, eskaintzen diren zentroen erdia osatzen dute.

Centros, según tipo de centro (%) Gráfico 4 **Grafikoa** **Zentroak, zentro-motaren arabera (%)**




(*) **Lambide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.** / Centros ocupacionales y especiales de empleo

**Iturrria/**Fuente**: Eustat**

### 1.2. Personal de Entidades y Centros

El sector dio trabajo directo en 2004 a un total de 20.613 personas, de las cuales 13.964 (68%) eran mujeres. En términos relativos, significa que un 2,2% de los ocupados trabajó en el sector, cifra que se eleva a un 3,6% en las mujeres. El máximo territorial se obtuvo en Álava, representando el 4,3% de las mujeres ocupadas.

El trabajo realizado por este colectivo se complementó con el de 15.608 voluntarios que participaron de forma desinteresada, casi en su totalidad en el sector privado (99%). Se contó también con un equivalente a 4.412 trabajadores subcontratados de atención directa, la mitad de los cuales trabajó en el servicio de ayuda a domicilio.

El personal calculado en equivalencia a dedicación plena (EDP) es de 18.653, lo que reduce en un 9% la cifra total de personas que trabajan en el sector. El personal a dedicación parcial incide en mayor medida en los centros de día y en los servicios sociales de base municipales.

Si se observa la clasificación del personal ocupado según la función realizada, el grupo mayoritario es el personal especializado de atención directa (49%) y, dentro de este grupo, la categoría de auxiliares de clínica destaca sobre el resto con un 20% del total de trabajadores. Muy importante es la presencia de los trabajadores-usuarios de los centros especiales de empleo, también denominados empresas de trabajo protegido, que surgieron al amparo de la LISMI y cuya finalidad es la integración social de discapacitados a través del trabajo. Por ello se les incor-

### 1.2. Entitateetako eta zentroetako langileak

Sektoreak guztira 20.613 laguni eman die lana 2.004. urtean, eta, horien artean, 13.964 (%68) emakumeak dira. Kopuru erlatiboetan, horrek esan nahi du landunen %2,2k horretan lan egiten duela; eta kopuru hori %3,6ra igotzen da emakumeen artean. Lurraldeka, Araban dugu gehienekoa, emakume landunen %4,3ra iristen baita.

Talde horrek egindako lana 15.608 borondatezko langilek egindakoarekin osatzen da. Borondatez lan egin dutenak sektore pribatuan aritu dira gehienak (%99). Azpikontratatutako zuzeneko arretako 4.412 langile ere kontuan hartu dira. Horietatik erdiak etxeko laguntzako zerbitzuan egin zuen lan.

Dedikazio osoko baliokidetzaren (DOB) arabera 18.653 langile kalkulatu dira. Horrek %9 murriztu du sektorean diharduen langileen kopuru osoa. Lanaldi partziala duten langileen kopuruak eragin handiagoa du eguneko zentroetan eta udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuetan.

Langileak eginkizunaren arabera sailkatuz gero, talderik handiena zuzeneko arretako langile espezializatuena da (%49), eta, talde horren barruan, klinikako laguntzaileena nagusitzen da besteen aldean, langileen guztizkoaren %20rekin. Garrantzi handikoa da langile-erabiltzaileen presentzia enplegu zentro berezietan, hots, lan babestuko enpresetan. Enpresa horiek EGLren (Ezgaituak Gizarteratzeko Legearen) babesean sortu ziren, eta bere xedea ezgaituak lanaren bidez gizarteratzea da. Horregatik sartu ditugu atal berezi honetan, gainerako

pora en esta categoría especial, diferenciada del resto de trabajadores al ser, por su finalidad, usuarios directos, pero, por otro lado, son al mismo tiempo trabajadores remunerados; este grupo, con 5.764 trabajadores, supone el 28% del personal empleado.

langileetatik bereizita. Izan ere, zentroaren xedearen arabera, zuzeneko erabiltzaileak dira; baina bestalde, langile ordainduak dira aldi berean. Talde horrek 5.764 langile ditu, eta langile enplegatuen %28 hartzen du.

Personal propio, según función (%) Gráfico **5 Grafikoa** **Bertako langileak, zereginaren arabera (%)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

En cuanto a la titularidad de entidades y centros donde este grupo de trabajadores realiza sus funciones, el 30% lo hizo en la red pública y el restante 70% en la privada. La distribución de este personal por territorio fue de un 17% en Álava, 47% en Bizkaia y 36% en Gipuzkoa. La elevada proporción de personal en Gipuzkoa viene dada por las importantes cifras de empleo protegido de los Centros Especiales de Empleo (CEE), de manera que si no tuviéramos en cuenta sus trabajadores-usuarios, la distribución del personal quedaría en un 36% en el sector público y un 64% en el sector privado, más acorde con la distribución de centros ya estudiada, y lo mismo sucedería en la distribución territorial resultante: 17% en Álava, 52% en Bizkaia y 30% en Gipuzkoa.

Respecto al año anterior, el incremento de empleo ha sido del 9%, destacando por su dinamismo el sector privado (+12%) frente al sector público (+ 4%), Bizkaia (+11%) frente a Álava y Gipuzkoa (+8%), y los centros ocupacionales y especiales de empleo (+24%) frente a los otros centros (+4%). Es importante mencionar que Álava se mantiene como el único territorio donde el empleo público es superior al privado.

Langile talde hori, jarduera egiten duen entitate eta zentroen titulartasunaren arabera, honela banatzen da: % 30ek sare publikoan egiten dute lan, eta gainerako %70ek, sare pribatuan. Langileen banaketa, lurraldeka honako hau da: %17 Araban, %47 Bizkaian eta %36 Gipuzkoan. Gipuzkoan lortutako proportzio altuen zergatia enplegu zentro berezietan (EZB) sortu diren enplegu babestuen kopuru altuetan dugu. Izan ere, langile eta erabiltzaileak alde batera uzten baditugu, langileen banaketa horrela geratuko litzateke: %36 sektore publikoan eta %64 sektore pribatuan. Banaketa hori bat dator arestian aztertu dugun zentro banaketarekin eta gauza bera gertatzen da lurraldeen araberako banaketarekin: Araban %17, Bizkaian %52 eta Gipuzkoan %30.

Aurreko urtearen aldean, enplegua %9 igo da. Dinamikoagoa izateagatik sektore pribatua (%+12) nabarmendu da sektore publikoaren (%4) aldean. Era berean, Bizkaia (%+11) nabarmendu da Araba eta Gipuzkoaren (%+8) aldean, eta lanbide zentroak nahiz enplegu-zentro bereziak (%+24) nabarmendu dira beste zentro batzuen aldean (%+4). Lurraldeen artean, Araba nabarmendu da, lurralde bakarra baita enplegu publikoa pribatuaren gainetik dagoena.

Personal propio, según tipo de población (%) Gráfico **6 Grafikoa** **Bertako langileak, artatutako biztanleriaren arabera (%)**




**Iturria**/Fuente**: Eustat**

Según el tipo de población atendida, el grupo mayoritario de trabajadores desarrolla su actividad en la atención a dos colectivos: discapacitados con 9.535 trabajadores (46%), de los cuales el 18% prestan atención asistencial y el 28% son trabajadores-usuarios de los CEE, y tercera edad con 7.379 trabajadores (36%). Únicamente el 18% del personal se destina a la atención de otros colectivos.

Arreta emandako biztanleria motaren arabera, langileen talderik handiena bi talderekin aritzen da: 9.535 langile (%46) ezgaituen ardura-lanetan (horietatik, %18k osasun-laguntza ematen dute, eta %28 EZBetako langile-erabiltzaileak dira) eta 7.379 (%36) zaharrekin. Langileen %18k baino ez dihardute gainerako kolektiboei arreta ematen.

Personal propio, según tipo de centro (% 2004) Gráfico **7 Grafikoa** **Bertako langileak, zentro-motaren arabera (% 2004)**




**(*) Lambide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.** / Centros Ocupacionales y especiales de empleo.

**Iturria**/Fuente**: Eustat**

Por tipo de centro donde realiza su actividad, el personal se asigna mayoritariamente a las residencias (43%) y a centros ocupacionales y especiales de empleo (34%). Por el contrario, en los centros de día, las asociaciones y otros, a pesar de representar la mitad de los centros, únicamente emplean el 13% del personal, si bien concentran el 80% del voluntariado.

Langileak aritzen diren zentro motaren arabera, honela sailkatuko ditugu: gehienak egoitzetan (%43) eta lanbide zentro nahiz enplegu zentro berezietan (%34) aritzen dira. Eguneko zentroek, elkarteek eta beste batzuek, ostera, nahiz eta zentroen erdia hartzen duten, langileen %13 baino ez dituzte enplegatzen, baina boluntarioen %80 biltzen dituzte.

## 1.3. Gasto de Entidades y Centros

La atención del sistema de servicios sociales en la C. A. de Euskadi requirió un esfuerzo económico cifrado en 1.196 millones de euros, que se divide en tres partidas: gasto corriente, transferencias y gasto de capital. Así, 876,2 millones de euros fueron gasto corriente destinado a sufragar la prestación de servicios (73%); casi la mitad de este gasto, 420,9 millones de euros, se destinó a personal. La partida referida a transferencias a familias alcanzó la cifra de 270 millones de euros (23%); en este epígrafe se incluyen principalmente los fondos destinados a financiar Renta Básica, Ayudas de Emergencia Social, pensiones no contributivas (PNC, LISMI y FBS) y las ayudas por nacimiento, reguladas por el Plan Interinstitucional de apoyo a familias con hijos e hijas. Finalmente, 50 millones de euros fueron destinados a gastos de capital (4%).

## 1.3. Entitateen eta zentroen gastua

Euskal AEn, gizarte zerbitzuen sistemaren beharrei erantzuteak, 1.196 milioi euroko ahalegin ekonomikoa eskatu zuen. Kopuru hori hiru partidatan dago banatuta: gastu arrunta, transferentziak eta kapital gastua. Gastu arrunta 876,2 milioi euro (%73) izan zen eta zerbitzuen gastuak ordaintzeko erabili zen, eta gastu horretatik ia erdia, 420,9 milioi euro, pertsonal gastuak ordaintzeko izan zen. Familietarako transferentzien partida 270 milioi eurora iritsi zen (%23). Epigrafe horretan, batik bat honako hauek finantzatzeko funtsak sartzen dira: oinarrizko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak, kontribuzioez besteko pentsioak (ezgaituak gizarteratzeko legea eta gizarte ongizateko funtsak), eta seme alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko planean araututa dauden jaiotzengatiko laguntzak. Azkenik, 50 milioi euro kapital gastuetarako izan ziren (%4).

Gastos por naturaleza, según titularidad y territorio (% 2004) — Gráfico 8 Grafikoa — **Gastuak, izaeraren arabera, titulartasunari eta lurraldeari jarraiki (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

El gasto total experimentó un crecimiento del 11% respecto a 2003. El gasto corriente creció un 11%, las transferencias a familias un 16 % y la inversión decreció en un 8%. Si consideramos los dos últimos años, el incremento conjunto fue de un 30% en el gasto corriente y un 37% en las transferencias a familias.

Gastuak, guztira, %11ko hazkundea izan du 2003. urtearen aldean. Gastu arrunta %11 hazi da, familietarako transferentziak %16, eta inbertsioa %8 jaitsi da. Azken bi urteak kontuan hartzen baditugu, hazkundea, orotara, %30ekoa izan da gastu arruntean eta %37koa familietarako transferentziatan.

Entre los programas de prestaciones económicas a familias destaca, por su importancia, la Renta Básica con un gasto de 125 millones de euros y un incremento del 36% en los dos últimos años, al concentrar casi la mitad de las prestaciones económicas a familias, y, por su excepcionalidad, las ayudas dirigidas a las víctimas del franquismo, que con carácter de pago único supuso en 2004 un gasto de 23 millones de euros, cifra que representa por sí sola el 2% del gasto total en servicios sociales.

Familietarako prestazio ekonomikoen programen artean oinarrizko errentaren programa nabarmendu da, daukan garrantziagatik. Azken bi urteetan 125 milioi euroko gastua izan du eta %36ko hazkundea. Familietarako prestazio ekonomikoen ia erdiak biltzen dira oinarrizko errentan, eta, salbuespen izanik, frankismo garaiko biktimentzako laguntzak ere nabarmendu dira. Ordainketa bakarreko laguntzak dira eta 2004an 23 milioi euroko gastua ekarri zuten. Zenbateko horrek, berez, gizarte zerbitzuetako guztizko gastuaren %2 osatzen du.

Según titularidad, el 60% del gasto se realizó en la red pública y el restante 40% en la privada. Territorialmente, las diferencias en cuanto a la presencia del sector público y privado son significativas según el territorio: Álava tiene la red de centros públicos más potente de los tres territorios ya que absorbe el 79% del gasto territorial destinado a la cobertura de los servicios sociales; sin embargo, Bizkaia y Gipuzkoa no alcanzan el 60%.

Gastua honela banatu da titulartasunaren arabera: %60 sare publikoan, eta gainerako %40 pribatuan. Lurraldeen arabera, alde nabarmenak daude sektore publiko edo pribatuari dagokionez: Arabak hiru lurraldeetako zentro publikoen sare garrantzitsuena du (gizarte zerbitzuetarako gastuaren %79 xurgatzen du). Aitzitik, Bizkaia eta Gipuzkoa ez dira %60ra iristen.

La composición del gasto pone de manifiesto la diferente organización según territorio de los servicios sociales, donde Álava mantiene notables diferencias respecto a Bizkaia y Gipuzkoa. El 34% del gasto alavés se destina a cubrir los gastos de personal de la red pública, reduciéndose en Bizkaia (14%) y en Gipuzkoa (12%). En Bizkaia, las transferencias a familias realizadas desde entidades públicas representan el 28% del gasto territorial, mientras que en Álava y Gipuzkoa esta cifra se reduce a un 17% y un 16%, respectivamente. En concreto, el gasto en Renta Básica de Bizkaia acaparó el 72% del gasto comunitario en este concepto y representó el 15% del gasto territorial, muy superior al 8% alavés y al 5% guipuzcoano.

Gastuaren osaerak argi uzten du gizarte zerbitzuen antolaketa ezberdina dela lurralde bakoitzean. Arabak alde handiak ditu, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren aldean. Arabako gastuaren %34 zentro publikoetako langileria gastuak ordaintzeko erabiltzen da; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, gastu hori %14koa eta %12koa da hurrenez hurren. Bizkaian, erakunde publikoek familiei laguntzeko egiten dituzten transferentziek gastuaren %28 hartzen dute; Araban eta Gipuzkoan, aldiz, kopuru hori %17ra eta %16ra iristen da hurrenez hurren. Zehatz mehatz, Bizkaiko oinarrizko errentako gastua erkidego osoko gastuaren %72 eta lurraldeko gastuaren %15 izan da, Arabakoaren eta Gipuzkoakoaren gainetik (%8 eta %5 hurrenez hurren).

Gastos según tipo de centro (% 2004) Gráfico **9** **Grafikoa** **Gastuak, zentro-motaren arabera (% 2004)**




**(*) Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.** / Centros Ocupacionales y especiales de empleo.

**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Por tipo de prestación, son tres los tipos de centros que adquieren protagonismo en el sistema de servicios sociales de la C.A. de Euskadi: servicios centrales, centros residenciales y ocupacionales, dado que en su conjunto representan el 85% del esfuerzo económico realizado. La mayor concentración de gasto se produjo en los servicios centrales de las entidades (38%), situándose por primera vez por delante de los centros residenciales; este hecho se explica por la evolución en los distintos programas de prestaciones económicas a familias, concentrados casi en su totalidad (98%) en los servicios centrales y que en 2004 representaron el 22% del gasto y el 32% del gasto público. Le sigue en importancia el gasto realizado en centros residenciales (32%) y en los centros ocupacionales y especiales de empleo (16%).

Según el tipo de población atendida, se destinó a la población general el 38% del gasto, básicamente vía programas de prestaciones económicas y servicio de ayuda a domicilio (que por sí solos representan, respectivamente, el 21% y el 5%). Siguen en nivel de gasto, los recursos destinados a ancianos (29%) y a discapacitados (24%); los demás grupos de población representan en conjunto el 9% del gasto.

Prestazio motaren arabera, Euskal AEko gizarte zerbitzuen sisteman hiru zentro mota dira garrantzitsuenak: zerbitzu nagusiak, egoitza zentroak eta lanbide zentroak. Izan ere zentro horiek, orotara, egindako ahalegin ekonomikoaren %85 dira. Gastu gehienak entitateen zerbitzu nagusietan egin ziren (%38). Lehen aldiz geratu ziren egoitza zentroen aurretik. Horren zergatia familietarako prestazio ekonomikoen bilakaera da: ia prestazio gehienak (%98) zerbitzu nagusietarako izan dira, eta 2004an gastuaren %22 eta gastu publikoaren %32 izan ziren. Zentroen garrantzia kontuan hartuta, egoitza zentroetan egindako gastua dago ondoren (%32), eta horren atzetik lanbide zentroetan eta enplegu zentro berezietan egindakoa (%16).

Arreta eman zaion biztanleria motaren arabera, gastuaren %38 izan da biztanleria orokorrarentzat. Batez ere prestazio ekonomikoen eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren bitartez bideratu da gastua (berez gastuaren %21 eta %5 eratzen dute, hurrenez hurren). Hurrengo tokian, zaharrei (%29) eta ezgaituei (%24) zuzendutako baliabideak daude; gainerako biztanleria taldeek guztizko gastuaren %9 hartzen dute.

Gastos, según tipo de población (% 2004) Gráfico **10** **Grafikoa** **Gastuak, artatutako biztanleriaren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

### 1.4. Financiación del Sistema

En el año 2004, la mayor parte del gasto (70%) se financió a través de fondos públicos por un total de 838 millones de euros y, en concreto, fueron las Diputaciones Forales las que realizaron mayor esfuerzo, contribuyendo en un 36% del gasto (la mitad del gasto público), seguidos por las aportaciones del Gobierno Vasco (19%) y de los Ayuntamientos (12%).

### 1.4. Sistemaren finantzaketa

2004an, gastuaren zatirik handiena (%70) funts publikoen bitartez finantzatu zen, 838 milioi eurorekin. Zehazki, foru aldundiak izan dira ahalegin handiena egin dutenak: gastuaren %36 hartu dute bere gain (gastu publikoaren erdia). Horien atzetik Eusko Jaurlaritzako ekarpenak (%19) eta udalenak (%12) daude.

Es preciso señalar que los ingresos procedentes de otras partidas ajenas al ámbito estudiado se incorporan como fondos propios de la entidad que los gestiona en la C.A. de Euskadi. En este sentido, los fondos asignados a la Administración Central incluyen únicamente aquellas subvenciones claramente finalistas, con origen en instituciones públicas de ámbito supraautonómico, como son las destinadas por el INEM a los centros especiales de empleo.

A través de fuentes privadas se obtuvo la financiación del 30% restante; las familias, a través de usuarios y donaciones, aportaron el 14%, las ventas ajenas a prestación de servicio el 12% y, por último, la aportación neta de las instituciones privadas supuso el 4%.

Territorialmente, de nuevo Álava refleja una financiación pública más elevada (76%), seguida por Bizkaia con un 72%. Por último Gipuzkoa, con un 63%, presenta el nivel de financiación pública más bajo, nuevamente, por el peso que tienen en su red privada los centros ocupacionales y especiales de empleo con alto nivel de autofinanciación. Si no tuviéramos en cuenta estos centros, se financiaría mediante aportación pública el 79% del gasto en servicios sociales en la C.A. de Euskadi y Álava mantendría una financiación pública más elevada (83%) que Bizkaia (79%) y Gipuzkoa (77%).

Sistemaren finantzaketaren aldetik, esan dezagun ikertutako esparrutik kanpo dauden erakundeetatik datozen sarrerei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzen dituzten entitateen funts gisa sartu ditugula. Ildo horretatik, administrazio zentralari esleitutako funtsek helburu jakin bat duten diru laguntzak baino ez dituzte hartzen, hala nola, INEMek enplegu zentro bereziei ematen dizkienak.

Iturri pribatuaren bidez, gainerako %30 finantzatu zen; finantzaketa pribatu horretan sartzen dira familiak (erabiltzaileek eta dohaintzek %14 ekartzen dute), zerbitzu eskaintzaz besteko salmentak (%12), eta azkenik, erakunde pribatuen ekarpen garbiak (%4).

Lurraldez lurralde, Araba da berriro ere finantzaketa publiko handiena duena (%76), Bizkaiaren aurretik (%72). Azkenik, Gipuzkoak finantzaketa publikoaren mailarik baxuena du, % 63. Alde hori berriro ere, herrialde horretako sare pribatuan autofinantzatze maila handiko enplegu zentro bereziek duten garrantziak eragin du. Zentro horiek kontuan hartuko ez balira, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuetako gastuaren %79 ekarpen publikoaren bidez finantzatuko litzateke. Arabak izango luke finantziazio publikorik altuena (%83), eta gero Bizkaiak (%79) eta Gipuzkoak (%77).

Financiación por origen, según titularidad y territorio (% 2004) — Gráfico **11** **Grafikoa** — **Finantzaketa, jatorriaren arabera, titulartasunari eta lurraldeari jarraiki (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Atendiendo a la naturaleza de los ingresos, son tres las principales fuentes de financiación del sistema: las ventas y prestaciones (25%), las subvenciones y conciertos (33%) y los fondos propios (40%), mientras que los otros ingresos representan tan sólo el 2%.

Sarrera motak kontuan hartuta, hiru finantziazio iturri garrantzitsu daude: salmentak eta prestazioak (%25), diru-laguntzak eta itunak (%33), eta bertako funtsak (%40); beste diru-sarrerek, ostera, ez dute %2 besterik osatzen.

Financiación por origen, según titularidad y territorio (% 2004) Gráfico **12** **Grafikoa** **Finantzaketa, jatorriaren arabera, biztanleria motari jarraiki (% 2004)**




**(*) Lanbide-zentroak eta enplegu-zentro bereziak.** / Centros Ocupacionales y especiales de empleo.

**Iturria**/Fuente: **Eustat**

En cuanto a las principales diferencias territoriales, Álava destaca en la financiación con recursos propios en los centros de la red foral (40%), a diferencia de Bizkaia y Gipuzkoa donde se da una mayor prestación indirecta a través de subvenciones y conciertos. El territorio vizcaíno presenta, por su parte, una financiación más elevada del Gobierno Vasco, 24% del gasto territorial, casi el doble que en Álava y Gipuzkoa (14%). En Gipuzkoa, la financiación por ventas ajenas a prestación de servicio duplica (18%) a los otros dos territorios, por la mayor presencia de centros ocupacionales y laborales para discapacitados.

La red de centros públicos se financia principalmente a través de las Diputaciones Forales (44%), Gobierno Vasco (29%) y Ayuntamientos (19%). La financiación pública obtenida representa en su conjunto el 92% y los ingresos procedentes de fuentes privadas el 8% restante, obtenidos en concepto de ventas y prestaciones.

Los centros privados se financiaron en un 36% con subvenciones y conciertos procedentes de la Administración. La principal fuente de ingreso pública fueron las Diputaciones, que aportaron un 25% de los ingresos; las demás administraciones, Ayuntamientos, Gobierno Vasco y Administración Central, aportaron el 11% restante. Asimismo, la aportación privada supuso el otro 64%. Según la naturaleza de los ingresos, el 51% procede de

Lurraldeen arteko ezberdintasun garrantzitsuenei dagokienez, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren aldean Araba nabarmendu da foru sareko zentroak baliabide propioekin finantzatzeagatik. Azken bi lurralde horietan diru-laguntzen eta itunen bidezko zeharkako prestazio gehiago izaten da. Bizkaiak finantzaketa handiagoa jasotzen du Eusko Jaurlaritzaren eskutik, lurralde gastuaren %24 hain zuzen ere. Zenbateko hori Arabaren eta Gipuzkoaren ia bikoitza da. Gipuzkoan, zerbitzu eskaintzaz besteko salmentengatiko finantziazioak (%18) beste bi lurraldeenak bikoiztu egin ditu. Izan ere ezgaituentzako lanbide zentro eta lan zentro gehiago daude.

Zentro publikoen sarea, oro har, foru aldundien (%44), Eusko Jaurlaritzaren (%29) eta udalen (%19) bitartez finantzatzen da. Lortutako finantzaketa publikoak, oro har, %92 osatzen du eta iturri pribatuetatik eratorritako sarrerek, gainerako %8. Sarrera pribatu gehienak salmenten eta prestazioen bitartez lortu dira.

Zentro pribatuen finantzaketaren %36 administrazioko diru laguntza eta itunen bidez lortu zen. Sarrera iturri publiko nagusiak honakoak izan ziren: aldundiak (sarreren %25 ekarri zuten); eta gainerako administrazioak, udalak, Eusko Jaurlaritza eta administrazio zentrala (gainerako %11 ekarri zuten). Era berean, ekarpen pribatuarekin gainerako %64 finantzatu zen. Sarreren izaerari jarraiki, %51 salmenta eta prestazioetatik eratorria da;

ventas y prestaciones, el 37% tiene como origen las subvenciones y conciertos, casi en su totalidad con la Administración Pública (únicamente el 2% procede de instituciones privadas), las donaciones realizadas por particulares aportan el 3%, otros ingresos el 2% y los fondos procedentes de las propias instituciones el 4% restante.

%37 diru laguntza eta itunetatik dator, ia gehienak administrazio publikoekin lortutakoak (%2 besterik ez dator erakunde pribatuetatik). Partikularrek egindako dohaintzek %3 osatzen dute, beste sarrera batzuek %2 eta erakundeetatik eratorriko funtsek, gainerako %4 osatzen dute.

## RESIDENCIAS

### 2.1. Centros y Plazas

A efectos de este estudio se han considerado las residencias en un sentido amplio, es decir, centros que ofrecen una atención, permanente o no, y una asistencia que comprende los servicios de alojamiento, manutención y otros complementarios. Este conjunto de centros es tan variado (hogares funcionales, residencias, centros de acogida, albergues, pisos tutelados, etc.) como lo son las necesidades de los diferentes colectivos hacia los que dirigen sus actividades (menores en situación de desprotección, mujeres maltratadas, ancianos autosuficientes, ancianos dependientes, discapacitados psíquicos profundos, autistas, discapacitados físicos motóricos, las personas sin hogar, inmigrantes, drogodependientes, personas afectadas por el VIH, etc.).

Dada la importancia de este tipo de centros en el conjunto del sistema de servicios sociales, la estadística incluye un capítulo específico sobre sus principales resultados por tipo de población atendida, variable que agrupa colectivos comunes.

## EGOITZAK

### 2.1. Zentroak eta plazak

Azterketa honetarako, egoitzak zentzu zabalean hartu dira, hau da, arreta (iraunkorra edo ez) eta osoko laguntza eskaintzen duten zentroak dira, ostatuaren, mantenuaren eta bestelako osagarrien bitartez. Halako zentroak mota askotakoak dira (etxe funtzionalak, egoitzak, harrera zentroak, aterpetxeak, tutoretzapeko etxeak…) beren jarduerak eskaintzen dizkieten kolektiboen beharrizanak ere askotarikoak baitira (adingabe babesgabeak, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, beren buruaz baliatzen diren zaharrak, besteren laguntza behar duten zaharrak, ezgaitu psikiko sakonak, autistak, mugimen urrituak, etxerik gabekoak, etorkinak, drogazaleak, GIBak jotako pertsonak…).

Gizarte zerbitzuen sistemaren baitan halako zentroek duten garrantzia kontuan izanda, arreta eman zaion biztanleria motaren araberako emaitza nagusiei buruzko kapitulu espezifikoa sartu dugu estatistikan. Aldagai horrek talde komunak hartzen ditu.

Plazas residenciales por titularidad, según territorio y tipo de población (% 2004)

Gráfico **13** **Grafikoa**

**Egoitza-plazak, titulartasunaren arabera, lurraldeari eta biztanleria motari jarraiki (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

La oferta residencial de la C.A. de Euskadi en 2004 se estructuró en torno a 715 centros, desde los que se ofertaron un total de 19.596 plazas y atendieron a 35.660 usuarios. Esta cifra se reduce a la mitad (17.912) si consideramos como usuarios aquellos que se encontraban ocupando una plaza a fecha de 15 de diciembre, que es el concepto utilizado habitualmente en esta estadística. En términos relativos significa una oferta total de 9 plazas por cada mil habitantes, de las que 7 se destinaron a tercera edad.

La oferta residencial fue mayoritariamente privada, con el 63% de las plazas y un ritmo de crecimiento superior a la pública, dado que en los últimos 10 años la oferta de plazas privadas se ha incrementado en un 5% de media anual, frente al 2% en los centros públicos. Existen claras diferencias territoriales, al ser Bizkaia el único territorio donde la oferta privada, con un 79% de las plazas, es mayoritaria, mientras que en Álava y Gipuzkoa se sitúa en el 42 y 50%, respectivamente.

Son de titularidad pública 258 residencias (36%) y privada 457 (64%). La oferta de plazas en residencias públicas es de 7.284 y 12.312 en las privadas. Territorialmente, Álava cuenta con 155 establecimientos residenciales, en su mayoría de carácter publico (61%) y una oferta total de 3.493 plazas. Bizkaia, con 339 establecimientos, mayoritariamente privados (83%), ofrece un total de 9.688 plazas. En Gipuzkoa, los centros con plazas residenciales son 221, con una oferta más equilibrada (48% de centros públicos y 52% privados), que disponen de 6.415 plazas residenciales, de las cuales el 50% son públicas.

2004ko Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza eskaintza 715 zentroren inguruan egituratu zen. Zentro horietan 19.596 plaza eskaini ziren eta 35.660 erabiltzaileri eman zitzaien arreta. Zifra hori erdiraino murrizten da (17.912) abenduaren 15ean plazaren batean zegoen oro hartzen bada erabiltzailetzat. Izan ere, hori da estatistika honetan erabili ohi den kontzeptua. Balio erlatiboetan mila biztanleko 9 plaza eskaintzen dira, eta horietatik 7 hirugarren adinerako izan dira.

Egoitza eskaintza pribatua izan da gehienbat, plaza guztien %63rekin. Gainera, eskaintza publikoak baino hazkunde erritmo biziagoa izan du. Izan ere, azken 10 urteetan plaza pribatuen eskaintza urtean %5 igo da batez beste, eta zentro publikoetan %2. Lurraldeetan ezberdintasun nabariak daude: Bizkaia da lurralde bakarra gehienbat eskaintza pribatua duena (plazen %79). Araban eta Gipuzkoan eskaintza pribatua %42 eta %50 da hurrenez hurren.

258 egoitzek (%36) titular publikoa dute, eta 457k (%64) pribatua. Egoitza publikoetan 7.284 plaza eskaintzen dira eta pribatuetan 12.312. Lurraldeen aldetik, Araban 155 egoitza daude, gehienak publikoak (%61); guztira 3.493 plaza eskaintzen dira. Bizkaian 339 egoitza daude, gehienak (%83) pribatuak; guztira 9.688 plaza eskaintzen dira. Gipuzkoan, 221 egoitza daude, eskaintza orekatuagoarekin (%48 zentro publikoak dira eta %52 pribatuak), eta 6.415 egoitza plaza daude; horietatik, %50 publikoak dira.

Plazas residenciales, según tipo de población (% 2004) — Gráfico 14 Grafikoa — **Egoitza-plazak, biztanleria motaren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

El grupo mayoritario de centros residenciales, 356 (50%), está destinado a la tercera edad, con una oferta total de 15.038 plazas (77%) y 14.016 (78%) usuarios. Esta oferta supone 3,9 plazas por cada 100 habitantes de 65 y más años. La red pública está compuesta por 105 centros y 5.408 plazas y la privada cuenta con 251 residencias de ancianos y 9.630 plazas.

Egoitza gehienak 356 (%50) zaharrentzat dira. Hala, 15.038 plaza daude zaharrentzat (%77), eta 14.016 dira erabiltzaileak (%78). Eskaintza hori 65 urte eta gehiagoko 100 biztanleko 3,9 plazakoa da. Sare publikoan 105 zentro daude, 5.408 plazekin. Aldiz, sare pribatuak 251 zahar etxe ditu, 9.630 plazekin.

En el año 2004, con la creación de 488 plazas distribuidas en 11 residencias de ancianos, se dio un crecimiento inferior al producido en 2003. En la última década se ha consolidado la incorporación al sistema de un sector empresarial atraído por las oportunidades surgidas del envejecimiento de la población; como resultado, se ha obtenido un incremento medio anual en el sector privado de un 11% en los centros y un 7% en las plazas ofertadas, mientras que los resultados en el sector público han sido claramente inferiores, con un 5% y un 2%, respectivamente. A pesar de todo, si tenemos en consideración que el 43% de las plazas en residencias privadas estuvieron concertadas con la Administración Pública, en su mayoría foral, el 65% de las plazas serían de responsabilidad pública.

2004an, 488 plaza sortu dira 11 zahar etxetan banatuta. 2003ko hazkundea baino hazkunde txikiagoa izan da. Azken hamarkadan, beti ere biztanleriaren zahartzearen ondorioz sortutako aukerek erakarririk, beste enpresa sektore bat finkatu da sistemaren baitan. Horren ondorioz, sektore pribatuan eskaini diren plazetan, urteko batez besteko %11ko hazkundea lortu da zentroei dagokienez, eta %7ko hazkundea eskainitako plazei dagokienez. Aitzitik, sektore publikoko emaitzak txikiagoak izan dira argi eta garbi: %5 eta %2 hurrenez hurren. Nolanahi ere, egoitza pribatuetako plazen %43 administrazio publikoekin (foru aldundiekin batik bat) hitzartuta egon direla kontuan hartzen badugu, plazen %65 ardura publikokoak izango lirateke.

En residencias para ancianos, nuevamente se pueden encontrar diferencias territoriales. Álava cuenta con 69 establecimientos residenciales para ancianos, mayoritariamente privados (61%), y una oferta de 2.559 plazas, más equilibrada según su titularidad (54% de plazas públicas y 46% privadas). Bizkaia, con 191 residencias desde las que se ofertan un total de 7.559 plazas, que representan la mitad de las plazas ofertadas en la Comunidad Autónoma, tiene un esquema totalmente privado, donde la oferta pública únicamente supone el 20% de las plazas. Por el contrario, en Gipuzkoa, con 96 centros y 4.920 plazas, su oferta tanto en centros (60%) como en plazas (52%) es mayoritariamente pública.

Zaharrentzako etxeetan ere ezberdintasunak ikusi ditugu lurraldeetan. Arabak zaharrentzako 69 etxe ditu, gehienak pribatuak (%61). 2.559 plaza daude eta titulartasunari dagokionez eskaintza orekatua da: plazen %54 publikoak dira eta %46 pribatuak. Bizkaian 191 zahar etxe daude, eta horietan 7.559 plaza daude, hots, erkidegoko plazen erdia. Bizkaiko eskema erabat pribatua da; izan ere, plaza publikoak %20 dira bakarrik. Aitzitik, Gipuzkoan gehienak publikoak dira: 96 zentro eta 4.920 plaza daude, eta zentroen %60 eta plazen %52 publikoak dira.

En función del grado de dependencia de los ancianos, sólo una pequeña proporción de las residencias, 32 en total, están destinadas en exclusiva a la atención de ancianos dependientes, con una oferta de 2.139 plazas (14%); el resto se divide en 78 para ancianos autosuficientes y 246 mixtas (69%) para ancianos autosuficientes y dependientes, 11.690 plazas que representan el 78% de las plazas residenciales destinadas a tercera edad. En el conjunto de ancianos residencializados, los dependientes (67%) han registrado, en los últimos 10 años, un incremento del 8% anual, sin embargo se han mantenido las cifras de ancianos autosuficientes.

Zaharren mendekotasun mailari bagagozkio, egoitza gutxi batzuk baino ez daude soilik mendetasuna duten zaharrak zaintzeko prestatuta (32 guztira). Egoitza horietan 2.139 plaza (%14) daude. Gainerako plazak beren buruaz baliatzen diren zaharrentzako egoitzetan (78 plaza) eta horrelako zaharrak nahiz mendetasuna dutenak nahasirik hartzen dituzten egoitzetan daude (246 plaza misto, hau da, plazen %69). Guztira, 11.690 plaza dira, eta hirugarren adinarentzako dauden egoitza plazen %78 dira. Zahar etxeetan dauden zaharren artean, mendekotasuna dutenen kopuruak (%67) gora egin du azken 10 urteetan, hots, urteko %8ko igoera izan dute. Aldiz, beren buruaz baliatzen diren zaharren kopurua mantendu egin da.

Continúan en importancia, por el volumen de plazas ofertadas, las residencias destinadas a la atención de personas con discapacidad, con 109 centros y un total de 1.641 plazas residenciales, el 58% de las cuales son ofertadas desde establecimientos privados. La gran mayoría de los establecimientos y de las plazas se dedican a la atención de discapacitados psíquicos y únicamente el 14% de los centros y 13% de las plazas son destinadas a discapacitados físicos. El tipo de centro más frecuente en este sector está formado por pisos-hogares funcionales para discapacitados psíquicos ligeros y medios (42%).

Eskaintzen dituzten plazen kopuruari jarraikiz, hurrengoak pertsona ezgaituei arreta emateko egoitzak dira. Hala, 109 zentro daude, 1.641 egoitza plazekin. Horietatik %58 establezimendu pribatuek eskaintzen dituzte. Establezimendu eta plaza gehienak ezgaitu psikikoei arreta emateko dira, eta zentroen %14 eta plazen %13 bakarrik dira ezgaitu fisikoentzat. Sektore honetako zentro mota arruntena da ezgaitu psikiko arin eta ertainentzako etxe funtzionala (%42).

Existen, además, 75 centros residenciales para infancia-juventud, en su mayoría de pequeño tamaño, en los que la oferta total de plazas es de 961, la mitad de las cuales son de titularidad pública (53%).

El grupo de 118 centros con plazas residenciales destinadas a los marginados es el más heterogéneo, tanto por su tipología (pisos de emergencia social, albergues de transeúntes, comunidades terapéuticas, etc.) y tamaño como por los sectores específicos que atiende. Del total de los 103 centros, el 77% son pisos con menos de 13 plazas, la mayoría de titularidad privada, con una oferta de 1.598 plazas que se reparte en un 30% en la red pública y un 70% en la privada.

Finalmente existe un pequeño número de centros destinados a la atención de mujeres, 57 en total, la mayoría públicos, con 358 plazas residenciales. Estas residencias son de pequeño tamaño y del tipo de pisos de emergencia.

Gainera, haur eta gazteentzako 75 egoitza zentro daude, txikiak gehienak. Zentro horietan, guztira, 961 plaza eskaini dira, eta horietatik erdia titulartasun publikokoak dira (%53).

Baztertuentzako plazak eskaintzen dituzten 118 egoitzena da talde heterogeneoena, bai tipologiaren aldetik (gizarte larrialdiko etxeak, pasadizokoentzako aterpetxeak, terapia komunitateak…) bai tamainaren eta arreta ematen zaien sektore espezifikoen aldetik. Guztira 103 zentro dira, eta 13 plaza baino gutxiago dituzten etxeak dira horietatik %77, gehienak titulartasun pribatukoak. Hala, 1.598 plaza eskaintzen dira; horietatik %30 sare publikokoak dira, eta %70 pribatukoak.

Azkenik, badira emakumeei arreta emateko zentro gutxi batzuk (57), gehienak publikoak, 358 egoitza plazekin. Egoitza horiek txikiak dira, larrialdiko etxeen antzekoak.

Residencias de ancianos. Usuarios, según grupo de edad y sexo (% 2004) Gráfico **15** **Grafikoa** **Zahar-etxeetako erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

## 2.2. Usuarios

De los 17.912 usuarios de servicios residenciales, 14.016 lo son en centros destinados a tercera edad. Los ancianos dependientes (9.413) representan la mitad (52%) de los usuarios de residencias y el 67% de los residencializados en centros para la tercera edad. Si observamos la evolución de los ancianos residencializados en los últimos diez años, la de los ancianos autosuficientes es negativa, tanto en residencias públicas como en las gestionadas por instituciones sin fin de lucro; el 70% de los ancianos que han sido ingresados en 2004 eran dependientes.

## 2.2. Erabiltzaileak

Egoitza zerbitzuetako 17.912 erabiltzailetatik, 14.016 hirugarren adinerako zentroetakoak dira. Mendetasuna duten zaharrek (9.413) egoitza erabiltzaileetako erdia (%52) eta zahar etxeetan daudenen %67 ordezten dute. Azken hamar urteetan zahar etxeetan dauden zaharren bilakaerari so eginez gero, beren buruaz baliatzen diren zaharren bilakaera negatiboa da, bai egoitza publikoetan bai irabazi asmorik gabeko erakundeetan kudeatutakoetan. 2004an sartu diren zaharren %70ek mendetasuna zuten.

Si se analizan las características de los residentes de tercera edad se observa que las mujeres son mayoría en las residencias de ancianos (70%), aumentando su presencia con la edad, con variaciones territoriales comprendidas entre el 68% de Álava y el 72% de Bizkaia. La distribución de los usuarios por edad es: un 17% menores de 75 años, el 40% entre 75 y 85 años, el 22% entre 85 y 89 años y el restante 21% de 90 y más años. Si bien no hay diferencias territoriales importantes, los ancianos residencializados en Gipuzkoa son de mayor edad, aunque con escasa diferencia respecto a Álava y Bizkaia.

Hirugarren adineko egoitzetan daudenen ezaugarriak aztertuz gero, zahar etxeetan batez ere emakumeak daudela ikusiko dugu (%70). Lurraldeen arabera aldeak daude, %68 Araban eta %72 Bizkaian. Honako hau da erabiltzaileen banaketa, adinaren arabera: %17k 75 urtetik behera ditu, %40k 75 eta 85 urte bitarte, %22k 85 eta 89 urte bitarte, eta gainerako %21 90 urte baino gehiagokoa da. Lurraldeen artean alde handirik ez dagoen arren, Gipuzkoako zahar-etxeetan daudenak zaharragoak dira. Hala ere, esan dugunez, ez dago alde handirik Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuta.

Residencias de discapacitados. Usuarios, según grupo de edad y sexo (% 2004) — Gráfico **16** **Grafikoa** — **Ezgaituen egoitzak. Erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Por su parte, en las residencias de discapacitados hay un 48% de mujeres, alcanzando la proporción más baja en Gipuzkoa (44%). La distribución por edad entre las personas residencializadas con discapacidad es: un 10% menores de 25 años, 23% entre 25 y 34 años y un 67% las mayores de 35 y más años. El grupo de edad que mayor presencia tiene es el comprendido entre los 35 y 44 años (29%); por el contrario, el grupo de edad que menos presencia tiene (1,4%) es el de usuarios menores de 15 años. Por otro lado, la escasa incidencia de los usuarios de 65 y más años (1,2%) es debida a que en este colectivo al alcanzar dicha edad normalmente pasa a ser usuario de residencias de ancianos.

Bestalde, eta ezgaituentzako etxeez ari garela, %48 emakumeak dira; Gipuzkoan dute proportziorik baxuena (%44). Hona hemen zahar etxeetako pertsonen adinaren araberako sailkapena: %10ek 25 urtetik behera dute, %23k 25 eta 34 urte bitarte, eta %67k 35 urte edo gehiago. Adin talde ugariena 35 eta 44 urte bitartekoa da (%29). Aitzitik, adin talderik urriena (%1,4) 15 urtetik beherakoena da. Bestalde, 65 urte eta gehiagokoek oso eragin txikia dute (%1,2). Izan ere, talde horretakoak normalean zahar etxeetako egoiliarrak izaten dira.

Si se tiene en cuenta la rotación existente entre los usuarios, se podría decir que 35.660 personas tuvieron acceso a los servicios residenciales a lo largo de 2004, un 15% más que el año anterior; esta cifra duplica el número de usuarios que se utiliza habitualmente en la estadística (a 15 de diciembre). Este aumento procede casi en

Erabiltzaileen artean dagoen txandaketa kontuan hartuta, esan daiteke 2004an 35.660 pertsonek izan zutela egoitza zerbitzuetarako sarbidea, hau da, iaz baino %15 gehiagok. Zifra horrek estatistikan (abenduaren 15erako) normalean erabiltzen den erabiltzaile kopurua bikoiztu du. Igoera hori baztertuentzako zentroetatik dator gehien-

su totalidad de centros destinados a marginados, donde se alcanza una media anual de 8 usuarios por plaza, muy superior a la de 1,3 obtenida en otros colectivos; esta diferencia viene motivada por las propias características del área, donde la mayoría de sus recursos residenciales son de corta estancia; en concreto, en los albergues para transeúntes, 10.600 personas utilizaron sus 213 plazas, es decir, 50 usuarios por plaza.

### 2.3. Personal de las Residencias

El personal a 15 de diciembre de los centros residenciales se elevó a 8.815 trabajadores, con una presencia mayoritaria de mujeres (85%). Según la titularidad de los centros, el 31% del personal propio trabajó en centros públicos. Territorialmente se distribuyó en un 17% en Álava, un 54% en Bizkaia y el 29% en Gipuzkoa.

Aunque el análisis del personal se basa en el personal contratado, no se debe olvidar el voluntariado, 1.137 personas que prestaron sus servicios de forma altruista durante 1 hora diaria de media, y el personal subcontratado, 2.123 trabajadores que, con 4 horas diarias de media, atendieron a los usuarios durante un total de 2,8 millones de horas en 2004.

Respecto al año 2003, el personal contratado disminuyó ligeramente (-1%), reducción que fue compensada por el incremento de personal subcontratado de atención directa, el cual representó el doble que la reducción del personal ocupado. El 73% del personal ocupado trabajó como asalariado fijo, el 22% eventual y el 5% restante como autónomo u otro tipo de personal no remunerado.

Este personal se clasifica funcionalmente en 790 trabajadores de dirección y administración (9%), 1.838 de servicios (21%), 4.443 sanitarios (50%) y un 20% restante formado por personal educativo, técnico y otro. Atendiendo a la clasificación profesional, auxiliares de clínica, hostelería y limpieza suponen el 61% del personal propio y el 66% de las mujeres.

En relación al tipo de población atendida por este colectivo de trabajadores, el 77% trabaja en el área de tercera edad, el 13% en el sector de discapacitados y el restante 10% en infancia, juventud marginación y mujer.

En las residencias para la tercera edad trabajaron un total de 6.808 personas, 7 de cada 10 en el sector privado. Funcionalmente, el personal sanitario tiene mayor presencia que la media (62%). Se observa que los puestos para cuidadores en las residencias de ancianos autosuficientes son sustituidos por puestos de auxiliares de clínica cuando se trata de residencias para ancianos dependientes o asistidos, en las que llegan a representar hasta el 62% del personal. Por último, señalar que en las residencias públicas se realizan la mayoría de las subcontrataciones en personal de atención directa (76%).

Las residencias para personas con discapacidad cuentan con una plantilla de 1.185 trabajadores, distribuidos a partes iguales entre centros públicos y privados, sin embargo la mayoría de los empleados en centros públi-

bat. Izan ere, zentro horietan urtean batez beste 8 erabiltzaile izaten dira plaza bakoitzeko, eta beste talde batzuetan kopuru hori 1,3koa izaten da. Ezberdintasun hori arloaren beraren ezaugarrien ondorioz sortu da: egoitza baliabide gehienak egonaldi laburrekoak dira; zehazki, pasadizokoentzako aterpeetan, 213 plaza 10.600 pertsonek erabili zituzten, hau da, plaza bakoitzeko 50 erabiltzaile izan ziren.

### 2.3. Egoitzetako langileak

Abenduaren 15ean, egoitza zentroetako langile kopurua 8.815 lagunera iritsi zen; horien artean gehiengoa, %85, emakumezkoak dira. Zentroen titulartasunaren arabera, langile kopuru osoaren %31 zentro publikoetan aritu zen. Lurraldez lurralde, honela banatu ziren: %17 Araban, %54 Bizkaian eta %29 Gipuzkoan.

Nahiz eta langileen azterketa kontratatutako langileetan oinarritzen den, ezin ditugu borondatez lan egiten dutenak ahaztu. 1.137 pertsonek era altruistan egin zuten lan, batez beste ordu betez. Azpikontratatutako langileak ere ezin ditugu ahaztu, 2.123 langile izan dira eta batez beste 4 orduz egin dute lan. 2004an 2,8 milioi orduz aritu ziren erabiltzaileak artatzen.

2003. urteari dagokionez, kontratatutako langileen kopurua pixka bat murriztu zen (%-1). Murrizketa hori konpentsatu egin zen arreta zuzeneko azpikontratatutako langileen hazkundearekin. Landunen murrizketaren bikoitza ordeztu zuen. Landunen %73k soldatako finkotzat egin zuen lan, %22k behin behineko langiletzat eta gainerako %5ek autonomotzat edo soldatakoa ez den langile motatzat.

Langileriaren sailkapena honako hau da: 790 langile zuzendaritza eta administrazioaren artean (%9), 1.838 langile zerbitzuetan (%21), 4.443 osasun alorrekoak (%50), eta gainerako %20 hezkuntza arlokoak, teknikariak eta beste batzuk. Lanbide sailkapenaren aldetik, klinikako laguntzaileek, eta ostalaritzako nahiz garbiketako langileek pertsonalaren %61 eta emakumeen %66 hartzen dute.

Langile talde horrek artatutako biztanle motari dagokionez, %77k hirugarren adinekoen arloan egiten dute lan, %13k ezgaituen sektorean, eta gaineko %10ek haurtzaroaren, gazteriaren, bazterkeriaren eta emakumeen alorrean.

Hirugarren adinekoentzako egoitzetan guztira 6.808 pertsonek egin zuten lan: 10etik 7k sektore pribatuan. Funtzionalki, osasun arloko langile gehiago dago batez beste (%62). Zahar etxeetako eskema horretan ikusten denez, berez baliatzen diren zaharrentzako egoitzetan klinika laguntzaile lanpostuekin ordezten dira zaintzaile lanpostuak. Mendekotasuna duten zaharrentzako edo laguntza behar dutenentzako egoitzetan, langileen %62 dira klinika laguntzaileak. Azkenik, esan beharra dago egoitza gehienetan zuzeneko arretarako langileetan egiten direla azpikontratazio gehienak (%76).

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitzek 1.185 langile dituzte, zentro publiko eta pribatuetan berdin banatuta. Hala ere, zentro publikoetako langile gehienek (%88) ezgaitu psikiko larri eta sakonentzako zentroetan

cos (88%) trabajó en establecimientos para discapacitados psíquicos severos-profundos, colectivo que absorbió el 60% del personal. Según la clasificación profesional, destacan cuidadores y ayudantes domiciliarios, monitores y auxiliares de clínica, donde cuidadores y monitores están inversamente relacionados: a mayor discapacidad psíquica más cuidadores y menos educadores.

egin zuten lan. Arlo horretan aritu zen langileen %60. Lanbide-sailkapenaren arabera, honako hauek nabarmentzen dira: zaintzaileak eta etxez etxeko laguntza ematen dutenak, monitoreak eta klinikako laguntzaileak. Gainera, zaintzaileak eta monitoreak alderantziz daude erlazionatuta: zenbat eta ezgaitasun psikiko handiagoa orduan eta hezitzaile gutxiago.

Residencias. Personal propio (E.D.P.) por 100 plazas residenciales (2004) Gráfico **17 Grafikoa** **Egoitzak. Bertako langileak, (DOB) 100 egoitza-plazako (2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Las residencias, en su conjunto, presentan un ratio de 47 trabajadores EDP por cada 100 plazas, de los que 25 son personal sanitario. No se aprecian diferencias importantes en cuanto a la titularidad pública o privada de los centros, pero sí se observan diferencias territoriales, al tener las residencias de Álava (52 trabajadores EDP) un ratio más elevado que Bizkaia (48) y Gipuzkoa (43); también existen diferencias según el tamaño del centro, que van desde 42 trabajadores EDP en residencias entre 30 y 100 plazas, a los 57 trabajadores en residencias entre 13 y 29 plazas.

Este mismo indicador varía según el área de población a la que se destine el recurso, si bien en el conjunto de las residencias de ancianos es de 47, se eleva a 67 en las de ancianos dependientes, mientras que en las residencias para ancianos autosuficientes desciende a 31, cifra similar a la obtenida en otras áreas como mujer y marginación. Las residencias que requieren mayor intensidad de recursos humanos son las destinadas a infancia-juventud con una dotación de 69 trabajadores EDP y las destinadas a personas con discapacidad (61 trabajadores EDP), en particular, las que atienden a discapacitados físicos donde se alcanza la cifra de 90 trabajadores EDP por cada 100 plazas.

Egoitzek dedikazio osoko baliokidetzan (DOB) ari diren 47 langileko ratioa dute 100 plaza bakoitzeko, eta horietatik 25 osasun arlokoak dira. Ez dago alde handirik zentroen titulartasun pribatuari nahiz publikoari dagokionez. Hala ere, lurraldeak kontuan hartuta badira zenbait ezberdintasun: Arabako egoitzetan (52 langile ari dira dedikazio osoko baliokidetzan) Bizkaiko (48) eta Gipuzkoako (43) egoitzetan baino ratio handiagoa dute. Horrez gain, zentroen tamainaren araberako aldeak ere badira. Izan ere, 30 eta 100 plaza bitarte dituzten egoitzetan, DOBn ari diren 42 langile daude, eta 13 eta 29 plaza bitarte dituztenetan 57 langile.

Adierazle hori aldatu egiten da baliabidea zein biztanleria atali ematen zaion arabera. Zahar etxeak, guztira, 47 badira ere, mendekotasuna duten zaharren etxeen kasuan 67 dira. Hala ere, beren buruaz baliatzen diren zaharren egoitzei dagokienez, 31 egoitza daude. Azken kopuru hori emakumeen eta baztertuen arloan lortutakoen antzekoa da. Giza baliabide gehien behar dituzten egoitzak haur eta gazteentzako egoitzak dira. DOBn ari diren 69 langileko zuzkidura dute. Era berean, ezgaituentzako egoitzak multzo horretan sartzen dira (DOBn diharduten 61 langile), ezgaitu fisikoenak batik bat: 100 plazako 90 langile ari dira DOBn.

## 2.4. Gasto de las Residencias

El esfuerzo económico destinado al mantenimiento de estos centros residenciales fue de 387 millones de euros, un 4% más que el año anterior, incremento importante porque asume el fuerte crecimiento que se dio en 2003 y ha supuesto que los recursos económicos asignados a los centros residenciales en estos dos años haya aumentado un 25%. El 51% del gasto se realizó en centros de titularidad privada. El gasto corriente de las residencias representó un 95%, del cual la mitad se destinó a gastos de personal. Territorialmente, el 20% del gasto correspondió a Álava, el 50% a Bizkaia y el 30% a Gipuzkoa.

## 2.4. Egoitzen gastua

Egoitza zentroak mantentzeko egindako ahalegin ekonomikoa 387 milioi eurokoa izan zen, iaz baino %4 handiagoa. Hazkundea garrantzitsua izan zen, 2003an egondako hazkundea bere baitan sartu baitzen eta horrek esan nahi baitu azken bi urteotan egoitza zentroetarako esleitutako baliabide ekonomikoek %25eko gorakada izan dutela. Gastuaren %51 zentro pribatuetan egin zen. Egoitzetako gastu arrunta %95 izan zen. Gastu horretatik erdia langileen gastuetan erabili zen. Lurraldez lurralde, gastuaren %20 Arabari egokitu zitzaion, Bizkaiari %50, eta Gipuzkoari %30.

Residencias. Gastos, según naturaleza (% 2004) Gráfico **18 Grafikoa** **Egoitzak. Gastuak, izaeraren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Residencias. Gastos, según tipo de población (% 2004) Gráfico **19 Grafikoa** **Egoitzak. Gastuak biztanleria motaren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

El gasto total de las residencias se distribuyó, por tipo de población atendida, en un 77% en centros residenciales de ancianos, 11% en centros de discapacitados, 7% en residencias de infancia y juventud y el 5% restante en residencias de marginados y mujeres.

Egoitzen guztizko gastua, zaindutako biztanleria motaren arabera, honela banatu zen: %77 zahar etxeetan, %11 ezgaituen zentroetan, %7 haurren eta gazteen egoitzetan, eta gainerako %5 baztertuentzako eta emakumeentzako egoitzetan.

Residencias. Gastos por naturaleza, según titularidad, territorio y tipo de población (% 2004) — Gráfico **20 Grafikoa** — **Egoitzak. Gastuak, izaeraren arabera, titulartasunari, lurraldeari eta biztanleria motari jarraiki (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

El gasto corriente medio por plaza residencial ascendió a 19.144 euros, un 3% más que en 2003. Territorialmente, Álava, con un coste de 21.656 euros por plaza, supera en más de 3.000 euros el obtenido en Bizkaia y Gipuzkoa. Según la titularidad de los centros, este índice varía entre los 25.830 euros en la red pública y los 18.832 en la privada.

Egoitza plaza bakoitzeko gastu arrunta 19.144 eurokoa izan da, hots, 2003an baino %3 gehiagokoa. Lurraldez lurralde, Araban, egoitza plaza bakoitzeko gastu arrunta 21.656 eurokoa da, hots, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa baino 3.000 euro handiagoa. Zentroen titulartasunaren arabera, zenbateko hori ezberdina izan da: 25.830 eurokoa sare publikoan, eta 82.832koa zentro pribatuetan.

Gasto corriente por plaza en residencias de ancianos (2004) — Gráfico **21 Grafikoa** — **Gastu arrunta, plazako, zahar-etxeetan (2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

El gasto corriente por plaza en las residencias de ancianos fue de 18.869 euros, similar al obtenido en residencias mixtas, es decir, para ancianos autosuficientes y asistidos. Este ratio varía significativamente según el tipo de residencia del que se trate, incrementándose en un 41% en las residencias para ancianos dependientes (26.562 euros) y descendiendo a la mitad en residencias para ancianos autosuficientes (9.138 euros).

En el sector de discapacitados este ratio se eleva a 25.603 euros por plaza, con variaciones significativas según el tipo de discapacidad atendida, que oscilaron entre los casi 33.746 euros en las residencias para psíquicos severos-profundos y los 19.146 euros obtenidos en las residencias para discapacitados psíquicos ligeros-medios.

En el sector de residencias de infancia-juventud el gasto por plaza fue de 30.076 euros. Dado que requieren menos intensidad de recursos, el ratio más bajo se obtuvo en los centros residenciales destinados a la atención de la mujer con 6.910 euros por plaza.

Zahar etxeetako plaza bakoitzeko gastu arrunta 18.869 eurokoa izan da; egoitza mistoetan ere gastu arrunta berdintsua izan da, hots, zahar gaitu eta lagunduentzako egoitzetan. Ratioa, hala ere, nabarmen aldatzen da egoitza motaren arabera, eta %41 gehitzen da mendekotasuna duten zaharrentzako egoitzetan (26.562 euro), eta erdira jaisten da bere buruaz baliatzen diren zaharrentzako egoitzetan (9.138 euro).

Ezgaituen arloan, ratioa 25.603 eurora iristen da plaza bakoitzeko, eta alde nabarmenak daude zaindutako ezgaitasun motaren arabera: ezgaitu psikiko larri eta sakonentzakoetan, ia 33.746 eurokoa da; ezgaitu psikiko arin eta ertainentzako egoitzetan, berriz, 19.146 eurora iristen da.

Haur eta gazteen egoitzen arloan plaza bakoitzeko gastua 30.076 eurokoa izan da. Baliabide gutxiago behar dutenez, ratiorik baxuena emakumeei arreta emateko egoitza zentroetan izan da, plazako 6.910 euro baino ez baitira gastatu.

Gasto corriente por plaza en residencias de discapacitados (2004) Gráfico **22 Grafikoa** **Gastu arrunta plazako, ezgaituen egoitzetan (2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

La retribución media por trabajador en EDP para el conjunto de las residencias fue de 25.596 euros, un 4,6% más que en 2003, con un máximo territorial en Álava, 33.762 euros. Según la titularidad de los centros, este índice es significativamente más elevado en los centros de la red pública, 41.883 euros, respecto a los centros privados, 18.169 euros.

En relación al tipo de población atendida, nuevamente aparecen diferencias significativas: desde los 19.667 euros en las residencias destinadas a la mujer, hasta los

DOBn diharduten langileen batez besteko ordainsaria 25.596 eurokoa izan da egoitzen multzo osoan, 2003an baino %4,6 handiagoa. Lurraldez lurralde, handiena Arabakoa izan da, hau da, 33.762 eurokoa. Zentroen titulartasunaren arabera, ratiorik altuena sare publikoari dagokio, 41.883 euro; baxuena, berriz, zentro pribatuei, 18.169 euro.

Zaindutako biztanleria motari dagokionez, berriro ere alde nabarmenak azaltzen dira: 19.667 euro emakumeentzako egoitzetan, eta beste muturrean, 33.739 euro ezgai-

33.739 euros en las residencias de discapacitados. En las residencias de ancianos la retribución media por trabajador en EDP fue de 24.100 euros.

tuen egoitzetan. Zahar etxeetan, DOBn diharduten langileko batez besteko ordainsaria 24.100 eurokoa da.

## 2.5. Financiación de las Residencias

En el año 2004 las residencias se financiaron mayoritariamente con aportación de dinero público (60%), en tanto que los usuarios aportaron una cantidad equivalente al 32% del gasto como pago de las prestaciones recibidas y el 8% restante se financió con dinero aportado por instituciones privadas y donaciones de particulares. En el capítulo de aportaciones públicas destacaron las provenientes de fondos de las Diputaciones Forales (50%), la mitad mediante conciertos, y de los Ayuntamientos (9%).

## 2.5. Egoitzen finantzaketa

Egoitzak honela finantzatu ziren 2004. urtean: %60 diru publikoaren bidez, gastuaren %32 erabiltzaileek ordaindu zuten jasotako prestazioengatik, eta, gainerako %8, erakunde pribatuek eta dohaintzek jarri zuten. Ekarpen publikoen atalean, aipatzekoak dira foru aldundien (%50) (erdiak itunen bidez) eta udalen (%9) funtsetatik datozenak.

Residencias. Financiación, según titularidad y tipo de población (% 2004) Gráfico **23** **Grafikoa** **Egoitzak. Finantzaketa, titulartasunaren eta biztanleria motaren arabera (% 2004)**




**Iturria**/Fuente: **Eustat**

Respecto a las diferencias territoriales, la financiación pública fue más elevada en Álava, un 71%, mientras que en Gipuzkoa representó un 59% y en Bizkaia un 56%. Por otra parte, los ingresos por ventas y prestaciones se mantienen más elevados en Bizkaia y Gipuzkoa (33% y 36%, respectivamente) que en Álava (27%).

Las fuentes principales de financiación variaron según la titularidad de las residencias. Las residencias públicas se financiaron en un 21% por ventas y prestaciones y el resto se financió a través de aportaciones públicas. En las residencias privadas la financiación por ventas y prestaciones se elevó a un 45%, las subvenciones y conciertos procedentes de la Administración Pública representaron un 42%, las instituciones privadas aportaron un 11% y, por último, las donaciones únicamente representaron el 2% restante.

Lurraldeen arteko aldeari dagokionez, finantzaketa publikoa handiagoa (%71) izan da Araban; Gipuzkoan, aldiz %59koa izan da, eta Bizkaian %56koa. Bestalde, Bizkaian eta Gipuzkoan, salmenta eta zerbitzuengatiko sarrerak altuagoak izan dira, %33 eta %36 hurrenez hurren, Arabakoak (%27) baino.

Finantzaketa iturri nagusiak desberdinak izan ziren egoitzen titulartasunaren arabera. Egoitza publikoak gehienbat (%21) salmenten eta zerbitzuen bidez finantzatu ziren; gainerakoa ekarpen publikoen bidez finantzatu zen. Egoitza pribatuetan, salmenten eta zerbitzuen bidezko finantzaketa %45ekoa izan zen; administrazio publikotik datozen diru laguntza eta itun bidez %42 finantzatu zen; erakunde pribatuek %11 ekarri zuten, eta azkenik, dohaintzetatik datozen beste sarrera batzuek gainerako %2 baino ez zuten ekarri.

Como puede observarse en el Gráfico 23, la composición de la financiación es muy diferente según el tipo de población a la que se dirigen los recursos, siendo en el sector de la tercera edad donde la aportación pública es más baja (52%) y más elevada la aportación de las familias, básicamente en concepto de ventas y prestaciones (41%); en el extremo opuesto la financiación pública más elevada se obtiene en el sector de infancia y juventud, donde dicha aportación se eleva al 98%.

23. grafikoan ikusten denez, finantzaketaren osaera oso desberdina da, baliabidea zein biztanleria motari zuzentzen zaion kontuan izanda: zaharren arloan da txikiena ekarpen publikoa (%52); handiena, berriz, familien ekarpenetan, batez ere salmenta eta zerbitzuen bidez (%41); beste muturrean, finantzaketa publiko handiena haur eta gazteen arloan lortzen da, ekarpen hori %98koa baita.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.eus